

# 1 GAZTELUKO ITXITURAKO HARRESIAK

Gaztelu Nagusia hiriko harresietatik kanpo zegoen. 1278an Belmecherreko gaztelua eraiki zen, eta Talaiaiko dorrearekin bat, defentsa-triangelu independente sendo bat osatu zuten. Horrela, ezkerrean, Santa Maria atetik igotzen den harresiak gezileiho batzuk ditu, hirirantz begira. Bestalde, eskuinean metro bat zabal baino gehixeago duen horma baten hasiera ikus daiteke, harresia eta Peña Menorren gotorlekua lotzen dituena. 1512ko konkistaren ondoren, bizilagunek hiriko harresiak eraitsi egin zituzten harria aprobetxatzeko, nahiz eta gazteluko defendatzaileek horren aurkako auziak jarri.

# 2 LIZARRARA GAZTELUA


Hobi txiki horrek bi gotorleku bereizten zituen. Peña Menorrekoa esparru bat zen iparraldeko muturrean dorre handi bat barne hartzen zuena. Hegoaldean, dorre txikiago batek ate garai bat defenditzen zuen, horretara egurrezko eskailera batez sartzen zen.

Ezkerretara, haitz txiki batean, harria erauzteko hiru ziriak markak ikus daitezke. Izan ere, gaztelua eraikitzeak, beharrezko harria hein handi batean toki horretako oinarritik hartu zen. Leku horretaz gain, erauzketa aztarnak ditugu goiko kaperaren ondoan, eta gaztelu honen eta Talaia izeneko dorrearen artean bi harrobi ireki ziren.

# 3 GAZTELUKO INDARGARRIAK

Gazteluaren behealdean gaude, hirugarren esparruaren aitzinean, horretaz altuera handiago bat gorde da. Behealde da kanpoalde gorde duen bakarra, harlanduz egina dago. Gainerako altxaeran aipatu kanpoaldeak ebatsi egin zuten, eta murruren barnealdean ikusten duguna, kare-morteroz eta harlangaitzez beteta osaturik.

Goialdean, eskuinaldean, harlanduzko horma zuzen bat ikusten da, zertxobait atzerago. Erdi Aroan hirugarren esparrua osatzen zuen harresia da. Gazteluko gainerako murrak bezala indartu zen artilleria modernoaren aurrean babesteko, harresi zaharrak estali ziren, nahiko meheak eta zuzenak zirelako, harlanduzko murru berriekin zaharrei itsatsiak, horrela lodiera handiago eman zitzaion



# 4 SOTOA

Gela hau harkaitzean zizelkatuta dago eta gazteluko sototzat hartu da. Areto trapezoidala da, harrian bertan zizelkatutako zutabe eta kapitela dituena. Kanpoalde trebeziak landutako harlanduz eginiko horma batez itxita dago. Horma horretan dago atea. Hala ere, ardoa hiriko erregeren jabegoa zuen eraikin batean zegoen batez ere, eta gerra izanez gero gaztelura igotzen zen.

# 5 SARBIDEA GAZTELU PRIMITIBORA

Gazteluko bigarren esparruko sarreraren aitzinean gaude. Lehenbiziko gotorlekua, landu gabeko harri txikiko harresiengatik ezaguterreza dena, leku honetan hasten zen. Atea gure ezkerretara zegoen, gainaldean, harkaitz gainean, eta horretara egurrezko eskailera baten bidez iristen zen.

Esparru hori, gero, harlanduzko bi dorretzarrekin indartu zen, eta sarbidea aldatu zen. Zoruan dauden harlanduek eskuineko dorrearen ondoan dagoen egurrezko eskaileraren euskarri posiblea markatzen digute, hortik, eskailera batzuk ezkerreko dorre iristen ziren (horietako batzuk gorde egin dira). Behin barruan, jatorrizko atea aurkituko genuke (ezkerrean atalaga irristatzera utzitako leuntzea antzematen da) eta barnealdera iritsiko ginatke.

# 6 UHARKA

Hau gazteluak zituen bi uharketako bat da. Ganga hasten zen lekura arte kontserbatzen da, eta harlanduen artean argamasa hidraulikoa antzeman daiteke, arrosa-kolorekoa, iragazgaiztu egiten zuena. Lehen gaztelua egin eta ondorengo fase batean eraiki zen, kaperaren horma bat aprobetxatzen baitzuen eta defentsa-esparruko gezileihoak hormatzen zituen, erabilgaitz bilakaturik.

Uharka modu naturalean betetzen zen betunez estalitako egurrezko kanal batzuen bidez, dorreetako euri-ura jasotzen zutenak eta, zutabe barnehuts batzuen bidez, tangara eramaten zuten. Horren mantentze-lana ezinbestekoa zen, ura funtsezkoa baitzen setioa izanez gero.



# 7 SAN SALVADOR KAPERETA ETA DORRE NAGUSIA

Gaztelu Nagusiak bi kapereta zituen. Hau zen goiko kapereta, San Salvadorri eskainia, eta behealdean Santa Mariari eskainitako beste bat zegoen. Kapereta defentsa-esparruaren parte zen, absidea dorre erdizirkular gisa zuela eta gezileihodun harresia hegoalde atxikia.

San Salvador kaperak noizbait Nafarroako Errege Artxiobaren nukleoa barne hartu zuen. Horregatik, segurtasuna funtsezkoa zen, eta 1329an kaperako atearen bi giltza egiteko agindu zuten: “que la una llave tuviese el capellán que canta cada día misa en la dicha iglesia, y la otra el merino o el que guardara dicho castillo, porque la dicha arca quedase mejor guardada”.

# 8 SARTZEKO ATEA

Hau zen Gaztelu Nagusira sartzeko atea, erraz defendatzeko moduko toki batean. Dokumentazioak zubi altxagarri bat aipatzen du ("porta coladiza", 1328), baita egurrezko oholtzak almenetan ("andamios", 1361). Puntu horretan, hasierako harresia indartu egin zen, gure ezkerrean ikus dezakegun harlanduzko horma sendo batekin, eta atea babesten zuen izkinako dorre batekin jarraitzen zuen. Atea ere sendotu egin zen 1341ean, "con barras anchas de fierro".



# 9 SUKALDEA

Gaztelu honetan hiru sukalde zeuden: sukalde nagusia, txikia eta kanpokoa. Sukaldeak sute-arrisku handia ziren, eta 1367an kanpoko sukalde berregiteko lan egiten zen, "erre zelako". Sukaldeak gaztelutik kanpo kokatzeak, baina defentsa-esparruaren barruan, sua gainerako egituretara zabaltzea eragozten zuen.

Lau gela ikus daitezke. Handienak bao landuak ditu horman goiko solairuko zoruko habeak bermatzeko, ezkerreko gelako altuerarekin bat etorritik. Arrokan hondeatutako zatia bakarrik kontserbatu da; gainerako hormak eta lurzuok guztiz galdu dira. Eltze hondakinak agertu zirenez, leku hori aipaturiko "kanpoko sukalde" gisa identifikatu zen.

# OROKORRA

Alderdi honetan ezagutzen den lehenbiziko gaztelua Lizarrarako da, horren estreinako aipamena 958 urtekoa da, Toda erregina gazteluko burua zenean, eta berriz ere 1024an aipatu zen, aldi horretan Semeno Garces izeneko tenente bat buru zelarik. Hala ere, ez da kokapen zehatza ezagutzen. 1076an, agiriak burgu berri bat aipatzen dute Lizarrara gaztelubarrenean, Estella izanen dena, gaztelua kokatzen zen haitzetako batean edo bietan. 1084an izendapena aldatu zen, eta tenenteak Estellakoak izan ziren Lizarrarakoak izan ordez. Haitz Nagusiak gotortzeko prozesua jarraitu zuen eta hiru fase nagusi antzematen dira:

- **Lehen fasea (XII. m.):** haitzeko goialdea gotortu zen, dorre errektangular batekin, lehenbiziko esparru bat kapera barne hartzen zuela eta bigarren esparru bat, ate altuarekin.

- **Bigarren fasea:** hirugarren esparru batekin handitu zen, sotoa bertan sartu zen.

- **Hirugarren fasea:** gazteluko harresiak sendotu ziren, lodiera handia eman zitzaion eta kanpoaldea harlanduz egin zen, horrekin babes handiagoa bilatzen zen kanpainako artilleriak izandako eboluzioaren aitzinean.


Nafarroak 1200 urtean Araba eta Gipuzkoa galdu ondoren, hiria eta gaztelua Erresumako bastioi garrantzitsuenetarikoa bat bilakatu ziren Gaztelaren aitzinean, eta setio ugari eta alferrekoak pairatu zituen, lehenbizikoa 1203an. Bestalde, erresumako Gaztelu Nagusietako baten aitzinean gaude, eta Karlos II.a eta Karlos III.a erregeren ohiko egoitza izan zen XIV. eta XV. mendeetan. Horretarako gazteluko alde bat jauregizat prestatu zen, ganbera ugariarekin eta "galeria ikusgarriekin". Horren ondorioz, bere kapera infanta batzuk bataiatu ziren, eta gaztelua Gorteetako noizbehinkako egoitza ere izan zen.

Gazteluaren esparrua Belmecher gazteluak, 1278an artean eraikia, eta Talaiak osatzen zuten, horiek guztiak harresiz baturik eta hiritik aparte. Hala ere, Nafarroako konkistaren ondoren 1512an, bakarrik Gaztelu Nagusiak iraunen zuen eta sendotu eta mantendu zen artilleriaren eboluzioarekin eta gotorleku modernoaren agerpenarekin zaharkitua gelditu arte.

1572an, Gaztelu Nagusia abandonatu eta partzialki lehertua izan zen. Orduetik aurrera, espolioak desagertzeko zorian utzi zuen Nafarroako Erresumaren antzinako gotorleku hau, esku-hartze arkeologikoez gazteluaren hondakinak lurpetik atera arte.



# GAZTELU NAGUSIA ESTELLA-LIZARRA







FEADER PROGRAMA EUROPEO AGRICOLA DE DESARROLLO RURAL: LEONARDO RODRIGUEZ  
 DEPARTAMENTO DE DESARROLLO RURAL Y MEDIO AMBIENTE LEONARDO RODRIGUEZ DE LOS ORDENES FINANCIEROS

**ADECUACIÓN DE ACCESO A LA CRUZ DE LOS CASTILLOS DE ESTELLA-LIZARRA ESTELLA-LIZARRAKO GAZTELUETAKO GURUTZERA HELTZEKO BIDEAREN EGOKITZAPENA**






CENTRO DE ESTUDIOS TIERRA ESTELLA LIZARRERIKO IKERKETA-GUNEA